

2020 / 2021 ikasturtea

**GIPUZKOAKO PERTSONA ANTIKOAGULATUEN ELKARTEKO ERABILTZAILEEI  
ZUZENDURIKO PROIEKTU DIDAKTIKO ETA BERRITZAILEA**

Olaia Soroa Navarro



## **LABURPENA**

Sarrera: Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, gaixotasun kardiobaskularrak mundu-mailako heriotza-arrazo nagusiaren erantzule dira. Asaldura hauen ondorioz, odol-zirkulazioa oztopatu daiteke eta osasuna arrisku larrian jarri. Gaixotasun kardiobaskularren tratamendurako erabiltzen den prebentziozko neurri terapeutikoa Ahoko Tratamendu Antikoagulatzailea (ATA) da. Tratamendua kronikoki hartu behar duten pazienteen kopuruak nabarmenki egin du gora. Egun, 1.000.000 pertsona inguru bizi dira antikoagulatzaile Espainian. Estatuan, ATArekiko, lehen mailako arretak edota hematologiako zerbitzuak burutzen duen kontrolaz gain, tratamenduaren autokontrola ahalbidetzen duten hainbat elkarte daude. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) autokontrolaren jarraipenerako informazioa igortzen duen elkarte bakarra Gipuzkoan dago, *Asociación Gipuzkoana de Personas Anticoaguladas* (AGIAC) deitua.

Helburua: AGIAC elkartearekin elkarlanean, proiektu berritzaile eta praktikoa batean parte hartzea.

Jarduerak eta emaitzak: proiektua burutu ahal izateko ekintza desberdinak gauzatu dira. Lehenik, formakuntza fasean, informazioa eskuratzeko zein gaitegian barneratzeko hainbat bilera egin dira. Ondoren, bideoaren eraketa aurrera eramateko, informazioaren zehaztapenak burutu eta formatuaren nondik norakoak erabaki dira. Azkenik, proiektua ezagutzera eman eta lanaren emaitzak eta ondorioak jaso dira.

Gogoeta: Gradu Amaierako Lana (GrAL) burutzeko horrelako proiektu batean parte hartzea oso esperientzia positiboa izan da. Elkartean barneratu, lan-dinamika ezagutu, gaiaren inguruko formakuntza jaso eta osasun hezitzaile bilakatzea aberasgarria izan da nire erizain bilakaeran. Autokontrolari esker, erabiltzailea arduratsuagoa bihurtzen da eta ahalduntze handiagoa lortzen du bere osasunaren kudeaketan. Pertsonen osasun-arreta egokia bermatu eta bizi-kalitatea hobetzeko jardunak beharrezkoak dira.

Hitz gakoak: gaixotasun kardiobaskularrak, ahoko tratamendu antikoagulatzailea, autokontrola.



## AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| 1. SARRERA .....   | 1  |
| 2. HELBURUAK.....  | 5  |
| 2.1. Helburu nagusia:.....   | 5  |
| 2.2. Helburu zehatzak: .....                                       | 5  |
| 3. JARDUERAK ETA EMAITZAK.....                                     | 6  |
| 3.1. Formakuntza fasea .....                                       | 6  |
| 3.2. Bideoaren eraketa.....  | 7  |
| 4. GOGOETA.....  | 10 |
| 5. BIBLIOGRAFIA.....   | 12 |
| 6. ERANSKINAK.....   | 14 |
| 1. eranskina: Munduko heriotza-arrazoi nagusiak. ....              | 14 |
| 2. eranskina: Fibrilazio aurikularra. ....                         | 15 |
| 3. eranskina: 2021eko martxoko autokontrolaren emaitzak.....       | 16 |
| 4. eranskina: Autokontrolaren gaztelaniazko bideoaren gidioa. .... | 17 |
| 5. eranskina: Autokontrolaren euskarazko bideoaren gidioa. ....    | 23 |
| 6. eranskina: Gaztelaniazko <i>PowerPointa</i> . ....              | 29 |
| 7. eranskina: Euskarazko <i>PowerPointa</i> . ....                 | 32 |
| 8. eranskina: Euskarazko <i>storyboarda</i> . ....                 | 35 |
| 9. eranskina: Gaztelaniazko <i>storyboarda</i> . ....              | 37 |
| 10. eranskina: Euskarazko behin betiko bideoa. ....                | 38 |
| 11. eranskina: Gaztelaniazko behin betiko bideoa.....              | 39 |
| 12. eranskina: Euskarazko balorazio orria.....                     | 40 |
| 13. eranskina: Gaztelaniazko balorazio orria eta erantzunak. ....  | 42 |



## **SIGLEN AURKIBIDEA**

**AGIAC:** Asociación Gipuzkoana de Personas Anticoaguladas (Gipuzkoako Pertsona Antikoagulatuen Elkarte).

**ATA:** Ahoko Tratamendu Antikoagulatzaila.

**EAE:** Euskal Autonomia Erkidegoa.

**EHU:** Euskal Herriko Unibertsitatea.

**FA:** Fibrilazio Aurikularra.

**GrAL:** Gradu Amaierako Lana.

**INR:** International Normalized Ratio (Nazioarteko Ratio Normalizatua).

**NICE:** National Institute for Health and Care Excellence (Osasunaren eta Asistentziaren Kalitaterako Institutu Nazionala).

**OME:** Osasunaren Mundu Erakundea.

**PAULA:** Perspectiva Actual de la situación de la anticoagulación en la práctica clínica de Atención primaria.

**SEMergen:** Sociedad Española de Médicos de Atención Primaria.

**SemFYC:** Sociedad Española de Medicina de Familia y Comunitaria.

**SEMG:** Sociedad Española de Médicos Generales y de Familia.





## 1. SARRERA

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) erregistratutako azken datuen arabera, gaixotasun kardiobaskularrak mundu-mailako heriotza-arrazoi nagusiaren erantzule dira, munduko heriotza guztien % 16aren arduradun izanik. 2000. urteaz geroztik, gaixotasun kardiobaskularrek, eragile nagusia kardiopatia iskemikoa izanik, heriotzen gorakadarik handiena jasan dute; 2000. urtean 2 milioi heriotza eragitetik, 2019an 8,9 milioi eragitera (1. eranskina). Argitaratutako emaitzekin, OMEk gaixotasun kardiobaskularren prebentzioari zein tratamenduari arreta handiagoa eskaini behar zaiela munduan azpimarratzen du (1).

Asaldura horietan bihotz barrunbeetan edota organismoko odol-hodietan koaguluak sortzen dira, tronbo edo odolbildu deituak, eta tronboak arteria edota zain bat buxatzen duenean, enbolia sortzen da. Eragile hauen ondorioz, odol-zirkulazioa oztopatu daiteke eta osasuna arrisku larrian jarri (2). Hortaz, asaldura hauek artatu edota garaiz ekidin ahal izateko, ahoko tratamendu antikoagulatzailearen beharra aldarrikatzen da (3).

Ahoko Tratamendu Antikoagulatzailea (ATA) gaixotasun kardiobaskularren tratamendurako erabiltzen den prebentziozko neurri terapeutikoa da. Antikoagulatzaileen zeregina, odolaren koagulazio denbora luzatzean datza (4), odol-hodietan koagulurik sor ez dadin (2).

Bi talde bereizten dira ATAen barnean. Batetik, K bitaminaren inhibitzaileak, farmako kumarinikoen taldekoak (5), hala nola, Acenocumarola (Sintrom), Espainian erabiliena dena eta Warfarina (Adocumar, Tedicumar) (2). Bestetik, ekintza zuzeneko ahoko antikoagulatzaileak, Rivaroxaban, Apixaban eta Dabigatran esaterako (ACODs ere deituak) (4), koagulazio kaskadaren koagulazio-maila desberdinetan eragiten dutenak. Ekintza zuzenekoak diren ahoko antikoagulatzaileak ez dute monitorizazio beharrik, soilik patologia konkretu batzuetara mugatzen dira (fibrilazio aurikular ez balbularra eta zainetako gaixotasun tronboenbolikoa) eta merkatuan guztientzat antidotorik ez egoteaz gain, kostu altua dute. Erabiltzaile bakoitzak hilabetean 100 euro ordaindu behar ditu kontsumitu ahal izateko (6). Arrazoi horiek medio, K bitaminaren inhibitzaileak erabiltzen dira nagusiki Espainiako estatuan (2).

Koagulazioaren aurkako medikamentuek beste farmako batzuekiko edota zenbait elikagaiekiko elkarrekintza ugari eragin ditzakete (6,7). Hori dela eta, monitorizazio

jarraia egin behar da dosiaren doikuntza egokia burutzeko (7). Dosifikazio egokiarekin honako konplikazio hauek saihestuko dira: dosifikazio txikiegia, tronbosi eragilea izan daitekeena eta gaindosifikazioa, hemorragia eragilea izan daitekeena (5,6).

Antikoagulazio gaitasunaren behaketa *International Normalized Ratio*aren (INR) neurketaren bitartez gauzatzen da (6). INRak, protonbina-denboraren probak, odol-lagin batean koagulu bat eratzeko behar den denbora neurtzen du zehazki (2). INRa zein balio-tartetan mantendu behar den, tratamenduaren hasieran zehazten da eta pertsona bakoitzaren patologiaren arabera da.

Antikoagulatzaileen balio-tartea estua da (5), esate baterako, gaur egungo balio-tarterik ohikoenak 2-3 artekoak eta 2,5-3,5 artekoak dira (2). Pazienteak egokitutako tarte horretan ematen duen denbora, ATArekin lotutako konplikazioen intzidentziaren determinatzaile nagusia da eta horretan, INRaren analisiaren maiztasunak eragin zuzena du (5). INRaren emaitzetan geroz eta gorabehera handiagoak identifikatu, tratamendurekin eta hilkortasunarekin lotutako konplikazioak orduan eta handiagoak izango dira (6).

Gaixotasun kardiobaskularren artean farmako antikoagulatzaileek Fibrilazio Aurikularrean (FA) dute erabilera nagusia (4). FA espainiar biztanleriak pairatzen duen arritmia nagusia da. Fibrilazio honetan arritmia bi aurikuletan jaiotzen da eta hauek seinale elektriko arinak eta desantolatuak bidaltzen dituzte, uzkurdura aurikular azkarrak eta irregularrak eraginez (2. eranskina) (8).

Hurrengoak FA patologiaren sintoma ohikoenak dira: palpitazio irregularrak, takikardia, min zein presio sentazioa bularraldean, nekea, zorabioak... paziente bakoitzeko aldatu daitezkeelarik. Bestetik, hipertentsio arteriala, diabetesa, gutxiegitasun kardiakoa, aurretiko miokardioko infartua, obesitatea, biriketako gaixotasun kronikoa... dira FA sortzeko arrisku faktore nagusiak (8). Beste arrisku faktore garrantzitsuetako bat adina dela ere frogatu da; adin handiagoko pazienteek tronbosi konplikazio handiagoa adierazi dute, iktusa gailenduz (6). FA sufritzen duten erabiltzaileek heriotza arrisku bikoitza dute eta iktusa sufritzeko arriskua bost aldiz handitzen da (7).

Tratamendu antikoagulatzaileak FArekin eta bihotz-balbulen ordezkapenekin lotutako istripu zerebrobaskularren erdia baino gehiago saihestu ahal izango lituzke (5), K bitaminaren antagonistak zehazki, iktus arriskua % 64ko portzentaian murrizteko gai dira (7).

Estatu mailan egin zen *Perspectiva Actual de la situación de la anticoagulación en la práctica clínica de Atención primaria* (PAULA) izeneko ikerketak, azken urtean Espainiako lehen mailako arretaren eremuan K bitaminaren aurkako antikoagulatzaileekin artatutako erabiltzaileak ikertu zituen. FA (ez balbularra) duten 1524 pazienteen antikoagulazioaren kontrola ezagutzea helburu izan zuen. Ikerketan parte hartu zuten Espainiako lehen mailako arretako hiru elkarteak hauek izan ziren: *Sociedad Española de Médicos de Atención Primaria* (SEMergen), *Sociedad Española de Medicina de Familia y Comunitaria* (SemFYC) eta *Sociedad Española de Médicos Generales y de Familia* (SEMG). Ikerketa honen arabera, Espainian FA dutenen batezbesteko adina 77 urtekoa dela adierazi zen (7).

Azken bi hamarkadetan, biztanleriaren zahartzea eta faktore kardiobaskularren ugaritzea dela eta, ATA kronikoki hartu behar duten pazienteen kopuruak nabarmenki gora egin du (2,3,6). Egun, 1.000.000 pertsona inguru bizi dira antikoagulatzen Espainian, kopurua etengabe handitzen doalarik (9). Aitzitik, Espainiako praktika klinikoko INRaren kontrola hobetu daiteke; FA (ez balbularra) duten, K bitaminaren inhibitzaileak hartzen dituzten eta lehen mailako arretaren bitartez kontrolaturik dauden erabiltzaileen % 40a ez baitago egoki kontrolatuta (7,10).

Ikerketa desberdinek azpimarratu dute INRaren analisiaren maiztasuna handitzeak, balio-tartearen barnean egotearen denbora luzatzen duela eta ondorio lazarriak sufritzeko probabilitatea zein heriotza gertatzeko aukera nabarmenki txikitzen direla (4,5,6). Analisiak sarri eginez, INRaren desbideratzeak lehenago identifikatzen eta zuzentzen dira (11).

INRren aztertze maiztasuna areagotzeko autokontrolaren sistema eraginkorra da. ATAREN autonkontrola INRaren ohiko kontrol analisia egitean eta emaitzaren arabera, antikoagulatzaile dosiaren auto-doiketan edota zaintzailearen partetikoko doiketan datza (12). Bertan, INRaren analisia, hilabetean 4 aldiz egiten da, hau da, gehienez 7 egunetik behin. Kontrol maiztasun horri esker, INRarengan oszilazio gutxiago gertatzen dira eta ondorioz, enbolien eta konplikazio hemorragikoen probabilitatea jaitsi egiten da (2,4).

Autokontrolak emaitza klinikoetan dituen abantailez gain, beste hainbat onura ere baditu. Esaterako, norberaren ekonomian zein bidaiatzeko orduan; erabiltzailea analisia burutzeko ez da inora lekualdatu behar, berak aukeraturiko leku eroso batean eta nahi duenean egin dezake (11). Hortaz, erabiltzaileak dirua zein denbora aurrezten du eta bere bizi-kalitatea hobetzen da (4).

Orokorrean pazienteek pairatzen duten gaixotasunarekiko zein ATArekiko duten ezagutza eskasa da (3). Ondorioz, autokontrola burutu ahal izateko, osasun heziketa eskaintzen zaie eta horri esker, behar dituzten gaitasunak eta trebetasunak eskuratzen dituzte. Helburua norbere osasunaren zainketan parte-hartze aktiboa edukitzea da (12).

Farmako antikoagulatzailen autokontrolak burutzeko erabiltzaileak behar duen materiala hurrengo da (12):

- INRaren zehaztapenerako balioztatutako koagulometroa, ziztagailua, lanzetak, dosifikazio-taula eta datuak erregistratzeko egunerokoa.
- Kontakturako telefonoa, zalantzen zein jazoeren jakinarazpenerako.
- Gomendagarria da interneterako sarbidea edukitzea, emaitzen erregistroa web-orrialdean egiteko.

Lehen mailako arretako medikuaren onarpena da ATArekin autokontrolari ekiteko beste irizpide garrantzitsu bat (12). Osasun profesionalak erabiltzailea ahalbideratuko du, betiere, antikoagulanteen tratamendua epe luzerako adierazita badu, froga modu egokian egiteko ikusmen-zolitasun nahikoa badu, trebatzeko gaitasun kognitibo aski badu eta gaixotasunaren rol aktiboa hartzeko prest badago. Betebehar horiek betetzen ez dituzten pazienteetan, arduradun batek rol aktibo hori bere gain hartu dezake prozesua aurrera eraman ahal izateko (6).

Tamayo et al.en artikulua araberan, ATA hartzen duten pertsonen % 50a inguru autokontrolerako hautagai dela estimatzen da. Euskal Herrian 37.000 pertsona ingururi dagokie zifra hori, Euskal Estatistika Erakundearen arabera, 2.178.000 pertsona inguruko biztanleria orokorraren % 1,7 izanik (13). 2016. urteko azterketa prospektibokuasiesperimentalaren emaitzak erreparatuta aldiz, autokontrolaren sistema Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) pazienteen edota haien zaintzaileen % 99k burutu dezakete, betiere, behar adina informazioz eta kontrolerako baliabide egokiz hornitzeko aukera eskura eduki ezker (4). Teknologia berriak agertzeak, adibidez, autokontrola burutzea errazten du (13). Alabaina, *National Institute for Health and Care Excellence* (NICE) erakundeak zainetako tronbosi sakona edo biriketako enbolia izan duten pazienteei autozaintza ez eskaintzea gomendatzen du (5).

Gaur egun, oraindik, autokontrola ez dago eguneroko jardunetan ezarrita, ez EAEn, ezta estatu mailan ere (Aragoien eta Kataluniako beste esperientzia batean izan ezik) (12). EAEn autokontrolaren sistemarekin lan egiten duten zerbitzu gehienak ospitalekoak dira

eta hematologia zerbitzuen menpe daude. Pertsona antikoagulatuen elkarte desberdinak daude, baina gehienek ez dute autokontrolaren edo haren jarraipenerako ikastarorik eskaintzen (14).

Hiru probintziak kontuan harturik, autokontrolaren jarraipenerako informazioa igortzen duen elkarte bakarra Gipuzkoan dago, *Asociación Gipuzkoana de Personas Anticoaguladas* (AGIAC) deiturikoa (14). Erakunde hau 2013ko azaroan sortu zen eta Donostian du egoitza nagusia. Elkartearen sortzaile nagusia Eduardo Tamayo da. 2012. urtean egin zuen ikerketaren emaitzetatik abiatuta (4), autokontrola ezagutzera emateko eta biztanleriaren artean hedatzeko ahalegindu zen beste hainbat aditurekin batera (15).

Gaur egun, AGIACek ATArek autokontrola burutzen duen talde garrantzitsu bat prestatzeko eta jarraitzeko ardura bere gain hartzen du, EAE osoko 779 pertsonarena hain zuzen ere (14). Osakidetzaren laguntza eta aintzatespena du eta hortaz, lehen mailako arretako osasun zentroek behar adina tira erreaktibo ematen dizkio erabiltzaileari. Autokontrola burutzen duen erabiltzailearen emaitzak elkarteko mediku batek kontrolatzen ditu eta edozein zalantza edo egonezin argitzeko kontaktua luzatzen diete 24 orduko eskuragarritasuna adieraziz (telefonoz, emailez zein web-orrialdearen bitartez) (11,15).

AGIACen helburu nagusiak kontrolen kalitatean egon daitezkeen desbideratzeak detektatzea, ezagutzen ez diren absentiak identifikatzea eta neurri zuzentzaile posibleak aplikatzea dira. Elkarteko web-orrialdeko daturik berrienak erreparatuta, 2021eko martxoan erabiltzaileek burututako autokontrolaren balorazioaren emaitzak hauek izan dira: erabateko kontrola % 73k, kontrol ona % 9k, hala moduzko kontrola % 6k eta kontrol eskasa % 12ek jasan dute (3. eranskina) (15).

## **2. HELBURUAK**

2.1. Helburu nagusia: Gipuzkoako Pertsona Antikoagulatuen Elkartearekin elkarlanean proiektu berritzaile eta praktiko batean parte hartzea.

2.2. Helburu zehatzak:

**2.2.1.** Elkartek antolatzen dituen formakuntza saioen partaide izatea.

**2.2.2.** Pazientearen autonomia bultzatzeko bideo bat sortzea.

### 3. JARDUERAK ETA EMAITZAK

AGIAC elkartearekin adostutako proiektua erabiltzaileentzat informazio-bideoa sortzea izan da eta hura gauzatu ahal izateko, hainbat bilera zein elkarretaratze burutu dira elkarteko kideekin zein unibertsitateko tutoreekin. Alde batetik, formakuntza fasea aurrera eraman da, bertan, antikoagulazioari eta autokontrolari buruzko informazioa jaso da. Bestetik, egitasmoaren pausoz pausoko eraikuntzarako aurrera eraman diren jarduerak azalduko dira. Azkenik, proiektuaren helburua bete den jakiteko burututako balorazioen emaitzak argitaratuko dira.

#### 3.1. Formakuntza fasea

Proiektuari hasiera emateko lehen elkarretaratzea **2020ko azaroaren 4an** izan zen AGIAC elkarteko kideekin. Elkartearen egungo Donostiako egoitzan gauzatu zen bilera eta elkar ezagutu eta lanaren nondik norakoak zehazteko helburua izan zuen. Bilera elkarte osatzen duten zenbait kideekin burutu zen: Eduardo Tamayo eta Edurne Uranga (medikuak), Jazmina Nuñez (erizaina) eta Gonzalo Guerrica (kimikaria), hain zuzen ere. Bertan, Gradu Amaierako Lana (GrAL) eraikitzen hasteko proposamenak partekatu eta eztabaidatu ostean, adostasun batera iritsi zen. Bileraren iraupena ordu batekoa izan zen.

Hilabete beranduago, proiektuaren nondik norakoak zehazteko, Donostiako egoitzan elkarketa aurrera eraman zen AGIAC elkarteko Edurnerekin eta Jazminarekin. Lanari ekin ahal izateko beharrezkoa ikusten zen zehaztapenaren emaitza honako hau izan zen: 10 minutuko bi bideo sortuko ziren (bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz), *PowerPointa* aplikazioa erabiliko zen eta informazioa bertan idatzirik egon arren, egileen ahotsaren bitartez, “*voz en off*” moduan, informazioaren azalpen oparoagoa emango zen. Egileen proposamena proiektua euskaraz zein gaztelaniaz burutzea izan zen. Elkartetik materiala gaztelaniaz eskatzen zen, baina bertan euskarazko informaziorik ia ez zegoenez, euskarazko materiala sortzearen garrantzia aldarrikatu zen eta elkarteko profesionalei ideia ona iruditu zitzaion. Elkarketak ordu bat iraun zuen.

Jorratu beharreko gaiaren inguruan formakuntza sakonagoa jasotzeko, **2020ko azaroaren 5ean** eta **azaroaren 12an**, elkarteak eskaintzen zuen ATAREN autokontrolaren inguruko formakuntza presentzialera gerturatzeko hitzarmena egin zen. Bertara gerturatzearen helburua, elkartearen eta autokontrolaren sistemaren nondik norakoak ezagutzea zein beraien eginkizuna guztiz ulertzea izan zen. Elkartearen egoitzan burutu ziren bilera hauetako bakoitzean, gaur egun bizitzen ari garen Covid-

19aren pandemiaren ondorioz ezarritako osasun neurriak direla eta, pertsona kopuru murriztagoa elkartu zen. Horien artean, elkartearen parte izateari ekin behar zioten hiru erabiltzaile eta Arantza Murguiondo, erizaina eta formakuntza presentzialen emaile nagusia. Formakuntza bakoitzak lau orduko luzera izan zuen.

Formakuntza presentzian profesionalak erabilitako materiala eskuratzeko AGIAC elkartera hurbilketa eman zen. Bertan, informazioz beteriko pendrivea eta beste zenbait dokumentu fisiko jaso ziren. Pendrive hau elkarteko erabiltzaile orori ere eman ohi zaio.

### 3.2. Bideoaren eraketa

Hitzartutako proiektuaren eraketari ekin ahal izateko, AGIAC elkartarekin egindako lehen bileraren ostean, **2020ko azaroaren 10ean**, hain zuzen, GrALa egiteko Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Donostiako erizaintza fakultateko esleitutako tutoreekin BlackBoard bidezko bilera egin zen. Bertan, elkartarekin adostutako proiektu-ideiaren berri eman eta haien iritzia eta onarpena jaso zen.

Bideoaren oinarri izango zen informazioaren bilaketa zabalagoa egiteko, **2020ko abenduak bigarren astean zehar**, zenbait datu-baseetan eskuratutako, Dialnetetik, Pubmedetik eta BVStik batik bat, antikoagulazioaren, autokontrolaren, gaixotasun kardiobaskularren, asaldura zerebrobaskularren zein zainetako gaixotasun tronboemboliken inguruko artikulak desberdinak landu ziren. Bilaketa honi esker, elkarrekin emandako informazioarekin kontrastatzeko aukera egon zen. Bilaketak eta irakurketak Donostiako liburutegian egin ziren.

Informazio ugari eskuratu eta irakurri ostean, **eguberriak iraun bitartean**, norbere etxeetan, aurrez bildutako informazio guztiaren artean egokiena zein argiena aukeratu eta proiekturako baliagarriak izango ziren txosten idatziak sortu ziren. Informazio guztia gaztelaniaz egonik, lehenik gaztelaniazko dokumentua sortu zen eta ondoren euskaratzeari ekin zitzaion. Google Drive plataformaren bitartez sortu ziren proiekturako idatzizko txostenak, etorkizunean bideoen gidoi izango zirenak, hain zuzen.

**2020ko abenduaren 29an**, email bitartez bideoaren behin-behineko gidioa gaztelaniaz bidali zitzaion Eburne eta Jazminari. Haien batera zuzenketak egin eta behin betiko gaztelaniazko bideoarako txostena prest geratu zen, haien onarpen eta guzti (4. eranskina). Era berean, hurrengo egunean, bideoaren gidioa euskaraz bidali zitzaion EHUko unibertsitateko tutoreei. Erantzuna iritsi zenean, gaztelaniazkoarekin egin zen bezala, zenbait zuzenketa burutu ziren. Euskarazko bertsiorako dokumentua ere prest

geratu zen (5. eranskina).

Behin bideoen gidoiak prest edukita, **2021eko urtarrilaren 2an**, aurkezpen-bideoaren oinarria izango zen *PowerPoint*aren plantilla eskuratu zen <https://slidesgo.com/es/> orrialdetik. Plantilla hautatu ostean, aurretik sortutako gidoietan idatzitako informazio guztitik, *PowerPoint*ean idatzirik garrantzitsuena soilik joango zela erabaki zen. Gainontzeko informazioa, bideoko ahozko azalpenean esango zen. Bi hizkuntzetarako plantilla berdina erabili zen. Lanean hiru aste igaro ziren.

*PowerPoint*ak prest edukitzean, **2021eko urtarrilaren 25ean**, AGIACeko profesionalei zein unibertsitateko tutoreei helarazi zitzaizkien beraien iritziak eskuratu eta onespena jasotzeko. Haien iruzkinak jaso ondoren, gustukoa zutela adituta, *PowerPoint*ak prest geratu ziren (6. eranskina) eta (7. eranskina).

Hurrengo pausua aurkezpena osatuko zuen ahotsaren grabazioaren nondik norakoak zehaztea izan zen. Horretarako, **2021eko urtarrilaren 28an**, unibertsitateko tutoreekin bideodeia hitzartu zen eta bertan sortu zen *Storyboard*aren (gidoi grafikoa) ideia ere. Bideoaren ahotsa grabatzeari ekin baino lehen, *storyboarda* sortuko zen, grabazioaren antolaketa errazteko. Euskarazko *Storyboarda* sortzeko elkarketa, **2021eko urtarrilaren 30ean**, Donostiako liburutegian eman zen (8. eranskina) eta modu berdinean burutu zen gaztelaniazkoa ere (9. eranskina) bi egun beranduago leku berdinean. Bi arratsaldetan biak egin ziren, zortzi ordu guztira.

Bideoaren ahotsaren lehen grabazioa, **2021eko otsailaren 6an**, Lekunberriko musika eskolako gela batean aurrera eramanean zen. Musika eskolako soinu ekipoa eta mikrofonoa mailegatu ahal izan ziren eta baita grabazioa burutzeko gela ere. Bestetik, Arrasateko Mondragon Unibertsitateko ikus-entzunezko komunikazio gradua ikasten ari den Manex Morenorekin harremanetan jarri eta, bere partetik, grabaketa burutzeko ordenagailuko programa eta jarraibideak jaso ziren. Lehenengo frogaren euskal hizkuntzan egin zen. Grabaketaren konplexutasuna zela eta, lehen saiakerak lau orduko iraupena izan zuten. Ahozko frogaren bigarren saiakera, astebete beranduago, leku berean eta grabaketa-ekipo berdinarekin izan zen eta honetan, gaztelaniazko bertsioari ere ekin zitzaion. Azkenik, **2021eko otsailaren 20an**, behin betiko grabaketak gauzatu ziren bi hizkuntzetan. Aurretik egindako entseguei esker, bost ordutan bi bertsioak grabatzea lortu zen.

Grabazioak bukatuta, bideoaren edizioa burutzeko, laguntzaile lanetan aritu den Manex



Morenori *PowerPoint*ak eta ahotsaren grabazioak helarazi zitzaizkion eta azalpenak eman ostean, edizioaren nondik norakoak bere esku utzi ziren. Bideoen edizioen lehen bertsioak eraikitzeak hilabeteko iraupena izan zutenez, **2021eko martxoaren erdialdean** iritsi ziren. Bideoen lehen bertsioa ikustean, hobetu zitezkeen zenbait atal erreparatu ziren: atzeko musikaren gehitzea, diapositiben erritmoaren mantsotzea... Hortaz, hirurak musika eskolan elkartzuz, xehetasun txiki horiek nola hobetu erabaki zen arratsalde batean. Editoreak zehaztaperen berrietan oinarritutako behin betiko proiektuko materiala (10. eranskina) eta (11. eranskina) **2021eko martxoaren 30ean** entregatu zuen.

Materiala elkartera bidaltzarekin eta erabiltzaileei luzatzeko prozesuarekin proposatutako proiektuaren azken fasea martxan jarri zen. Bideoak **2021eko apirilaren 2an** AGIAC elkartean aurkeztuak izan ziren eta bertako osasun profesionalen gain utzi zen erabiltzaileei materiala bidaltzeko ardura. Sortutako edukiak erabiltzaileengan zein osasun profesionalengan zein gogobetetze maila duen jakiteko tresna garrantzitsua izan da balorazio orria. Ondorioz, hasieratik erronkan hartutako helburua bete den jakiteko eta *feedback*a iristeko bitartekari izan dira (12. eranskina) eta (13. eranskina) balorazio orriak. Azken hauek elkartean bideoekin batera entregatuak izan ziren erabiltzaileek zein osasun-profesional batek bideoak ikusi ostean bete zitzaten.

Balorazio orrien emaitzei erreparatuz (13. eranskina), hurrengoa nabarmentzen da. Bederatzi pertsonak erantzun dute gaztelaniazko balorazio orria eta euskarazkoan berriz, ez da erantzunik jaso. Zortzi pazientek balorazioko galdera guztiak erantzun dituzte eta horietako batek galdera bakarra erantzun du. Azken honek, berarentzat letra txikiegia dela eta irakurtzeko arazoak dituela azaldu du. Orokorrean bideoek balorazio positiboa izan dute, zoriontzeko hainbat iruzkin utzi dituztelarik. Erabiltzaileen iruzkinen artean hauek nabarmendu dira: hizkuntza argia, formatu deigarria eta transmisio-bide zuzena. Gainera, bideoa ikusi ostean bururatutako hainbat gomendio ere helarazi dira, bideoaren amaieran kontaktu bideak (telefonoa edota emaila) azaltzea batik bat.

Bestetik, elkarteko profesionalengandik jasotako hitzek, proiektuaren helburu nagusia bete dela adierazi dute, batez ere, oso erabilgarria izango zaiela behin eta berriz errepikatu dutelako. Arantza Murguiondo erizainak zehazki, hobetzeko iruzkin bat gehitu du: bideoan heparinaren efektuaz hitz egitean, INRaren balioa handitzeko erabiltzen dela esan beharrean, INRa handitzen den bitartean administratu beharreko elementu gehigarria dela esateko.

#### 4. GOGOETA

Erizaintzako GrALa burutzeko AGIAC bezalako elkarte batekin elkarlanean aritu ahal izatea pertsonalki esperientzia aberasgarria izanda da. Elkarteko lan dinamikan barneratu eta erabiltzaileekin harreman estua garatzeak, osasun profesional bilakatzeko ikasketa prozesuan lagundu nau. Proiektu honen bitartez, erizaintzako funtzio nagusietako bat garatu ahal izan dut, gainontzeko praktika asistentzialetan edota unibertsitateko jardunetan gehiegi landu ez dudana, osasun hezitzaile bilakatzeko hain zuzen. Erabiltzaileei heziketa emateko tresna baliagarria sortzeko prozesuan, AGIAC elkarteko partaide sentitu naiz eta zalantzak zein iritziak partekatzeko giro eroso eskaini digute. Beste ikasle batekin elkarlanean aritzeak ere, proiektua eramangarriagoa egin duela azpimarratu nahi nuke.

Sortutako informazio-bideoa elkartearentzat zein erabiltzaileentzat erabilgarria dela uste dut. Elkartek ATArekin autokontrolaren inguruko materiala eskuratu du; argia, didaktikoa eta bi hizkuntzatan egina, erabiltzaile orori bidaltzeko baliagarria izango dena. Gainera, eduki elektronikoak geroz eta baliabide eraginkorragoak dira, Covid-19ak sortutako gaur egungo egoeretan are balio handiagoa dutelarik. Erabiltzaileentzat aldiz, haien gaixotasun prozesuaren zein autozaintzaren inguruko argibideak modu zuzenean eta argian jasotzeaz gain, norberak material elektronikoa eskura edukitzea garrantzitsua da. Formakuntza egoki bati esker, autosufizientea izateko behar diren gaitasunak eta trebetasunak eskuratzen dira. Erabiltzailea arduratsuagoa bihurtzen da eta ahalduntze handiagoa lortzen du bere osasunaren kudeaketan. Ahalduntzeari esker, pertsona kontrol handiagoz hornitu daiteke eta ondorioz, bere bizi-kalitatea nabarmenki hobetzen da.

Erizaintzako eredu desberdinen egileen artean, Dorothea Orem izan zen autozaintzaren teoriaren garatzailea. Kontzeptu honi erantzuteko *Nursing: Concepts of Practice* izeneko liburua argitaratu zuen 1971. urtean. Oremen "Beharren Eskola" oinarritzen den hiru teoria nagusietako bat "Norberaren zaintzaren teoria" da eta bere definizioa hurrengoa da: norbera da bere bizitzako osasunaren zaintzaile nagusia, ongizatearen arduraduna. Pertsona oro bere zaintzaren erdigune izan beharko litzateke eta horretarako behar dituen jakintzak ikasi egiten ditu, erizaina hezitzaile bilakatzuz (16). Gaixotasunaren autozaintza egokia burutzeko, autokontrola aurrera eramatea garrantzitsua da. Modu horretan, gaixotasunaren inguruko ezagutza sakonagoa lortzen da. Autokontrola burutzeak, sistemarekiko menpekotasuna murrizten laguntzen du eta gogobetetasun handiagoa sortzen du pazientearengan.

Gainera, zenbait ikerketetan baieztatu den moduan, lehen mailako arretan ematen den ohiko kontrola bezain segurua da autokontrolaren sistema (6). Are gehiago, osasun zentroetan jarraipena egiten duten erabiltzaileen % 47 tarte terapeutikoaren barruan mantentzen da eta autokontrola burutzen dutenetatik % 71 (2,5).

Elkarteko erabiltzaileek autozainketa burutzeko gaitasunak nola garatzen dituzten ikusirik, autokontrola aldarrikatzea eta hedatzea ezinbestekoa da. Berriro ere, behar hori oraindik eta handiagoa bilakatu da Covid-19ak eragindako pandemia osasun sistemaren erdigune bilakatu denetik. Osasun sistemetako kolapsoak Covid-19arekin erlaziorik ez duten gainontzeko gaixotasunen jarraipenei leku garrantzitsua kendu die. Gaixotasun kardiobaskularren jarraipen ezegoki batek konplikazioak eta osasun egoeraren okertze nabarmena eragin dezake.

Hasitako proiektuak hainbat jarraipen-bide izan ditzake etorkizunean. Proiektu berritzaile honekin jarraitzeko gomendioa bultzatu nahi nuke, oso praktikoa eta dinamikoa izan baita niretzat. Niregan zein elkartearengan eragin diren onurak gailendu diren aldetik, autokontrolaren ezagutzak ere hedapena jasoko du. Baliabide elektronikoak sortzen jarraitzeak garrantzia du. Adibidez, ATA hartzen duen pertsona batentzat baliagarria izango da, INRaren balioa jakiteko burutzen den analisiaren froga egiteko teknika azaltzen bada. Azalpenean, modu didaktikoan jardunez hurrengoa argitu daiteke: beharrezkoa den materiala, jarraitu beharreko pausoak, emaitzak nola interpretatu... Hobetze aldera, elkartearekin zein erabiltzaileekin gertuko harreman handiagoa izatera bultzatuko nituzke hurrengo urteko ikasleak. Elkarreak antolatzen dituen jarduera guztietara joatea egokia litzateke, haietan eskuratzen baita ezagutza handiena, bai informazio aldetik eta baita harreman aldetik ere.

Azkenik, osasun profesionalak biztanleriarentzat eredugarri izanik, praktika osasungarriak eta seguruak gomendatu behar dituela aldarrikatu nahi nuke. Osasun zein gaixotasun prozesuan erosotasuna eta ongizatea duen erabiltzailea bilakatzen lagundu behar du, norberaren bizi-kalitatea hobetzeko eta edozein ezbehar gertatzea ekiditeko.


## 5. BIBLIOGRAFIA

1. Organización Mundial de La Salud [Internet]. Comunicados de prensa: La OMS revela las principales causas de muerte y discapacidad en el mundo: 2000-2019; 2020/12/09 [Kontsulta-data: 2021/03/04]. Eskuragarri: <https://www.who.int/es/news/item/09-12-2020-who-reveals-leading-causes-of-death-and-disability-worldwide-2000-2019>
2. Dorronsoro O, Galo A, Murguiondo A. Formación en Autocontrol del Tratamiento Anticoagulante Oral (TAO): Guía para el anticoagulado. Donostia: AGIAC; 2018.
3. Romeo P, Lastanao C, Cea PA, Carreira A, Ibañez I, Martín MV. Tratamiento anticoagulante oral. El papel de enfermería en atención primaria. RSI [Internet]. 2020 [Kontsulta-data: 2021/02/12];1(9). Erabilgarri: <https://www.revistasanitariadeinvestigacion.com/tratamiento-anticoagulante-oral-el-papel-de-enfermeria-en-atencion-primaria/>
4. Tamayo E, Galo A, Dorronsoro O, Uranga E, Ostiza A, García A, et al. Oral anticoagulation with vitamin K inhibitors and determinants of successful self-management in primery care. BMC Cardiovasc Disord. 2016;16:180. DOI: 10.1186/s12872-016-0326-z.
5. Heneghan CJ, Garcia-Alamino JM, Spencer EA, Ward AM, Perera R, Bankhead C, et al. Self-monitoring and self-management of oral anticoagulation. Cochrane Database Syst. Rev. 2016; (7):1-81. DOI: 10.1002/14651858.CD003839.pub3
6. Menéndez B. Autocontrol del tratamiento anticoagulante oral: experiencia en Aragón [Tesia]. Departamento de Medicina Psiquiatría y Dermatología: Universidad de Zaragoza; 12/01/2017. [Kontsulta-data: 2021/02/05]. Eskuragarri: <https://zaguan.unizar.es/record/59995/files/TESIS-2017-016.pdf>
7. Barrios V, Escobar C, Prieto L, Osorio G, Polo J, Lobos JM et al. Control de la anticoagulación en pacientes con fibrilación auricular no valvular asistidos en atención primaria en España. Estudio PAULA. Rev Esp Cardiol [Internet]. 2015 [Kontsulta-data: 2021/02/15];68:769–76. Erabilgarri: <https://www.revespcardiol.org/es-pdf-S0300893215003152>

8. Federación Española de Asociaciones de Anticoagulados [Internet]. FEASAN: NEPHILA; 2014 [Kontsulta-data: 2021/03/05]. La Fibrilación auricular; [11]. Eskuragarri: <https://anticoagulados.info/observatorio/wp-content/uploads/2019/01/Conoce-la-Fibrilacio%CC%81n-Auricular.pdf>
9. FEASAN Federación Española de Asociaciones de Anticoagulados [Internet]. Valencia; 2018 [Kontsulta-data: 2021/03/05]; Eskuragarri: <https://anticoagulados.info/>
10. Cinza S, Rey-Aldana D, Gestal E, Calvo-Gómez C. Evaluación del grado de anticoagulación de pacientes con fibrilación auricular en el ámbito de atención primaria de Galicia. Estudio ANFAGAL. Rev. Esp. Cardiol. [Internet]. 2015 [Kontsulta-data: 2021/03/21]; 68(9): 753-760. Eskuragarri: <https://www.sciencedirect.com/science/article/abs/pii/S0300893214004163>
11. AGIAC elkarte. Autocontrol en el TAO (Tratamiento Anticoagulante Oral). Donostia (Gipuzkoa); 2020.
12. Galo A, Dorronsoro O. Formación en autocontrol del paciente anticoagulado: Guía para el profesional sanitario. Donostia: AGIAC; 2015.
13. Tamayo E, Vergara I, Uranga E, Ostiza A, Garcia A, Lopez I, et al. Oral anticoagulation and self-management: analysis of the factors that determine the feasibility of using self-testing and self-management in primary care. BMC Cardiovasc Disord. 2013;13(1):1-4. DOI: [10.1186/1471-2261-13-59](https://doi.org/10.1186/1471-2261-13-59)
14. AGIAC. Memoria de actividades de la Asociación Gipuzkoana de Anticoagulados/as. Donostia/San Sebastián: AGIAC; 2019.
15. AGIAC - Asociación Gipuzkoana de Anticoagulados [Internet]. Donostia, Gipuzkoa; 2021 [Kontsulta-data: 2021/03/06]. Eskuragarri: <http://agiac.org>.
16. Elorza MI, Huitzi JX. Euskal Herriko Unibertsitatea. Erizaintzako Zientzia eta Diziplina [Internet]. Bilbo: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea; 2017 [Kontsulta-data:2021/04/20]. Eskuragarri:<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/25754/UCH00176898.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

## 6. ERANSKINAK


### 1. eranskina: Munduko heriotza-arrazoi nagusiak.



|                  |                |
|------------------|----------------|
| Ez kutsakorak: ● | Kutsakorak: ●  |
| 2019.URTEAn: ●   | 2000.URTEAn: ○ |


Iturria: Organización Mundial de La Salud [Internet]. Las 10 principales causas de defunción; 2020/12/09 [Kontsulta-data: 2021/03/04]. Eskuragarri: <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/the-top-10-causes-of-death>

**2. eranskina: Fibrilazio aurikularra.**



Iturria: FEASAN web-orrialdetik moldatua (8).

### 3. eranskina: 2021eko martxoko autokontrolaren emaitzak.



Iturria: AGIAC - Asociación Gipuzkoana de Anticoagulados [Internet]. Donostia, Gipuzkoa; 2021 [Kontsultatuta: 2021/04/22]. Eskuragarri: <http://agiac.org>.



#### **4. eranskina: Autokontrolaren gaztelaniazko bideoaren gidoia.**

Kaixo, ¿buscas información sobre el autocontrol? **(Olaia).**

#### **Introducción (Olaia):**

El autocontrol es una herramienta segura y eficaz, que mejora la salud, la calidad de vida y la economía y descarga el Sistema de Salud. Pero para poder llevarlo a cabo, antes debes entender varios conceptos que te explicaremos a continuación.

**Contenido (Oier):** Este será el contenido que trataremos a continuación: conceptos, medicamentos, palabras clave, riesgos, alimentación, beneficios del autocontrol, toma y confusiones, interacciones y por último mayor autocuidado.

#### **1. Definir conceptos (Olaia):**

La coagulación es la propiedad que tiene la sangre de espesarse. Se trata de un sistema de defensa del organismo que trata de evitar grandes pérdidas de sangre y mantener un equilibrio, por ejemplo, al hacerte una herida. Pero todos los coágulos no son beneficiosos, si el coágulo se forma dentro un vaso sanguíneo del sistema circulatorio y obstruye el paso de la sangre (llamado Trombo) pone en riesgo tu salud.

La anticoagulación es un tratamiento que se utiliza en las personas que tienen riesgo de producir trombosis y para retrasar el proceso de coagulación con el objetivo de que el coágulo no se forme dentro de los vasos sanguíneos. No inhibe la coagulación, porque el organismo necesita tener factores de coagulación ante una hemorragia, sino que la hace más larga en el tiempo. Gracias a ello, se procura evitar los trombos y prevenir problemas de trombosis, ictus, etcétera.

#### **2. Medicamentos (Oier):**

- Los anticoagulantes son el grupo de medicamentos que sirven para retrasar el tiempo de coagulación de la sangre.
- Dentro de los anticoagulantes orales tenemos dos grupos:
  1. Inhibidores de la vitamina K: Actúan retrasando el tiempo de coagulación de la sangre.
    - Acenocumarol (Sintrom): es el más utilizado en España.
    - Warfarina (Aldocumar, Tedicumar).
  2. Anticoagulantes Orales de acción directa (ACODs): actúan a distinto nivel de la coagulación. Son utilizados en pocas ocasiones, puesto que no hay

antídoto para todos en el mercado (en el caso del Sintrom tenemos la vitamina K). Encima, a diferencia del Sintrom no se pueden pautar a todos los pacientes, además de no necesitar control y ser muy caros.

Cada cuerpo tiene diferentes necesidades que varían dependiendo del estilo de vida y del funcionamiento del organismo, y por ese motivo cada persona tiene una dosis distinta.

### 3. Palabras clave (Olaia) y (Oier):

- INR: Es el resultado que te da el coagulómetro (aparato). Concretamente, es el tiempo que tarda en coagular la sangre. Con un INR bajo tendrás más probabilidad de sufrir trombosis y el riesgo de hemorragias es mayor cuando el INR está en cifras altas. Siempre será menos malo (que no mejor) que el INR esté un poco por encima que un poco por debajo).
- Rango: El valor del INR debe estar dentro de tu rango. Cada uno tiene su propio rango, por ejemplo: 2.0-3.0, 2.5-3.5... El cual varía según el paciente y la patología. Busca garantizar la eficacia de la dosis, previniendo la trombosis, y asegurando de que no se van a provocar hemorragias. El margen lo indicará el médico/a a cada paciente. Cuanto más tiempo consigas estar dentro del rango, menor probabilidad de complicaciones tendrás y por lo tanto, mejor salud.
- Nivel: Es el patrón de ritmo de pastillas que hay que tomar. Lo sabrás consultando en la tabla de niveles. El número del nivel, no es equivalente a la dosis de mg/semana. Por ejemplo, si se corresponde el nivel 6, no quiere decir que se deba toma 6mg de dosis a la semana.
- Hemorragia: la hemorragia es una pérdida de sangre o un sangrado que al mismo tiempo es uno de los riesgos del tratamiento anticoagulante, aumenta la probabilidad si el INR está por encima del rango.
- Trombos: Son coágulos que se forman en las fosas del corazón o en los vasos sanguíneos del organismo que obstruyen el flujo adecuado de la sangre.
- Vitamina K: El Sintrom es un inhibidor de la vitamina K, pero es necesario remarcar que consumir cierta cantidad de esta vitamina también es de gran

importancia. La vitamina K es una vitamina necesaria para la realización de varias funciones del organismo como mantener la correcta mineralización de los huesos y la prevención de la osteoporosis. Además de prevenir varios problemas cardíacos y caries dental. Tomar vitamina K es beneficioso para la vista y para la integridad de la piel.

- Konakion: Es una aportación de vitamina K para disminuir el INR cuando está muy alto. La orden médica determinará si ese día no se deberá tomar la dosis de la pastilla por haber tomado el antídoto de ella.
- Heparina: Es un anticoagulante inyectable que se indica por el profesional sanitario en función del riesgo de trombosis. Con ello, se logra aumentar el INR para aproximarse al valor mínimo recomendado del rango, pero no se da en todos los pacientes. Se administra para proteger al/a la usuario/a de los posibles trombos... La orden médica determinará si además de la inyección se deberá tomar también la dosis de la pastilla.

#### **4. Riesgos (Olaia):**

Debes tener cuidado con los riesgos como los tropezones (debes usar zapatillas cerradas por detrás siempre), las caídas (cuidado con las alfombras, cuidado con subirse a alturas, cuidado con los deportes de gran intensidad, deportes de contacto, o deportes en el que el riesgo de caídas es alto, como por ejemplo el ciclismo), cuidado con las mordeduras o los arañazos (si tienes animales de compañía sobre todo) y cuidado con los cortes (al usar instrumentos afilados como cuchillos, tijeras, cuchilla... es mejor utilizar maquinilla eléctrica que cualquier cuchilla). Se recomienda usar cepillos de dientes suaves y cabezal pequeño como precaución ante cualquier sangrado. Si te ocurre algo de lo mencionado anteriormente, avisa al profesional de salud o acude al Servicio de Urgencias lo antes posible.

#### **5. Alimentación (Oier):**

Uno de los apartados más importantes o más debatidos y el que más preguntas genera en el ámbito del autocontrol es el de la alimentación. La idea más importante es, que tienes que llevar una dieta equilibrada, moderada y variada.

